



EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 18koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Horren bidez zehazten dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, bai eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletan ere, hutsik dauden Maisu-maistren kidegoko behin betiko lanpostuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen arteko autonomia-erkidego mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten duen Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko Aginduaren bigarren oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz (2021eko azaroaren 12ko EHAA), Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko otsailaren 14ko Ebazpenaren bidez argitaratu ziren lehiaketa horretan eskainitako behin-behineko lanpostu hutsak. Ebazpen hori, gerora, 2022ko martxoaren 21ko Ebazpenaren bidez aldatu zen.

Erreklamazioak aurkezteko epea igarota, eta Hezkuntzako sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko Aginduaren bigarren oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz, lehiaketa horretan eskainitako behin betiko lanpostu hutsak argitaratzen dira.

Ondorioz, hau

XEDATU DUT:

Lehen artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen I. eranskinean Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetan hutsik dauden behin betiko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Bigarren artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen II. Eranskinean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletako ikastetxeetan hutsik dauden behin betiko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Hirugarren artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen III. eranskinean Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan hutsik dauden behin betiko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.



Laugarren artikulua.- Interesatuek gorako errekurtoa jarri ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 18a

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA